

# la perfumería

de Mercadona

2021EKO GABONAK



ONENA

*onena oparitzeko*



**MY SOUL ENCHANTED**


*for him & for her*





# COSMIC

deliplus  
COLOR



# AURKIBIDEA

## NOLA EGITEN DA?

**06** Onena, onena oparitzeko

## MAKILLAJEAREN LURRALDEA

**10** Makillaje kosmikoa

## EDERTASUNA ETA ONGIZATEA

**16** “Prestatu azala” programa

## AZKEN NOBEDADEA

**22** *Makeup Essentials*

**24** Pertsonalizatu zure perfumea



## OPARITU ONENA

**26** *Romantic chic*

**28** Dotorezia klasikoa

**30** Kosmopoliten gisan...

**32** *Blue Christmas*

**34** Gabon magikoak

**38** Janaria prestatzera!

Argitaratzailea: MERCADONA SA  
Fuente del Jarro industrialdea.  
Ciudad de Liria, 5. 46988 Paterna / Valentzia  
Egilea: Ediciones ELCA  
Inprimatzailea: Jiménez Godoy  
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren produktu-aukera estandarri dagozkio. Espazio-arazoak direla eta, baliteke inoiz produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei.  
Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea.  
© Aldizkariaren titularra MERCADONA SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debebatuta dago aldizkaria baimenik gabe erabiltzea, osorik zein partzialki, eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak erabiltzea ere.



Produktu hau  
kudeaketa  
jasangarritun baso eta  
lurri kontrolatuetatik  
 dator.

www.pefc.es

# ONENA

## onena oparitzeko

**G**auza baliotsuen funtsa bikaintasunaren etengabeko bilaketan datza. Mercadonako Lurrindegia aurrekaririk gabeko erronkari heldu dio aurten, eta kalitate goreneko produktuak eskaintzen ditu, hala nola Cosmic Shine bilduma, munduko espezialistarik onenek sortu eta prestatua. Gure lanean lortu dugun bikaintasun horrekin, gure iraultza txiki handian parte hartzera animatzen zaitugu: zure onena ematea, magia gerta dadin. Zure ingurukoentzat presente izatea, begiradarekin entzutea eta axola zaizkizun haiek pertsona bikain sentiaraziko dituen detaile berezi horretan pentsatzea.



LA PERFUMERÍA  
DE MERCADONA

EZAGUTU COSMIC SHINE FLASKOEN SORKUNTZAREN ETA EKOIZPENAREN MAPA KRONOLOGIKOA

Prozesua abiatzen dugu



## Diseinua

Flasko beretik abiatuta, proiektu honen erronkarik handiena izan da diseinuarekin jolastea eta itxura berria ematea.



# COSMIC SHINE





## *Extra White* beira

**Cosmic Shiner**en flaskoak *Extra White* izeneko kalitate goreneko beirarekin egiten dira. Beira horren ezaugarri nagusiak distira eta gardentasuna dira. Beira horrek diamantea gogorarazten du, luxuzko itxura baitu, handientsua eta noblea.


3 hilabetera



## Fabrikazioa

Lehenik eta behin, lehengaiak pisatzen dira nahasketak egiteko instalazioetan. Leku berean, zulo batzuetan isurtzen dira, eta diluitu eta bainera batean sartzen dira, 1.400 °C-an, non testura homogoneoa izan arte urtzen baitira.





## Dekorazioa

Flaskoak apaintzen dituen esmalteari *Jet Metal* esaten zaio, eta hiru fasetan aplikatzen da: lehenik, oinarria; gero, zilarrezko esmaltatua; eta, amaitzeko, azken kolorea.




## Tonuak

Asko eztabaidatzen dugu akaberei, erabili beharreko teknologiei eta kolorearen hautaketari buruz, eta hamar tonu desberdin probatzera iristen gara.



4 hilabetera

6 hilabetera



5 hilabetera



## Prototipoa

Piezas pieza, garapen-zentroetan fabrikatu beharreko moldea zehazteko laginak egiten dira, behin betikoa aurkitu arte, hau da, lortu nahi duguna.



## Packaginga

**Cosmic Shine** perfumearen ontzietan itxura galaktiko eta futurista ematen duten metal preziatuak erabili dira, zilarraren eta urre arrosaren koloretakoak; hala, izarrez harago eramaten gaituen *look* berezi hori lortu da. Gainazal fina du, distiratsua eta dotorea.

Tapoiak esfera zeharrargiaren itxura du, eta eskafandra ekartzen du gogora, izarrarteko bidaia batean ezinbestekoa den pieza. Tipografiak, berriz, soilak eta hedatuak dira; hizkuntza futurista indartzen dute, eta Cosmic Shineren diseinua osatzen.



Gabon  
hauetan... **onena**  
oparitzen dizugu,  
zuk ere zure **onena**  
oparitu dezazun.

*Azken emaitza*

## Zer usain du Cosmic Shineek?

Hauena guztiena: mandarina, limoia, piperbeltz beltza, menda, jengibre, sagar berdea, anbar grisa, vetivera, sandaloa, zedroa... Cosmic Shine *for him* zurkara, zitrikoa, espeziatua eta anbankara da.

Emakumeentzako lurrina, berriz, distiratsua, kontrastatuta eta baikorra da. Osagaien artean, honako hauek ditu: pomelo arrosa, mandarina, *granita* udarea, piperbeltz arrosa, laranja-lorea, Bulgariako arrosa, zedroa, *tonka* baba, *bourbon* banilla...



# Makillaje Kosmiko



Gabon hauetan, aukera ugari dituzu jai-giroko egun eta gauetarako. Ezagutu **Cosmic bilduma**, kosmosa bezain distiratsua!

## *Party day*

- ✓ Begi-itzala, 01 zk. teila matea, Begi-itzal trukagarrien Cosmic Kitekoa (6), betzuloetan.
- ✓ Begi-itzala, 07 zk. kobre-kolore metalikoa, Begi-itzal trukagarrien Cosmic Kitekoa (6), betazal mugikorrean eta begiaren beheko marran.
- ✓ Cosmic Betile-maskara (5).
- ✓ Cosmic Argitzailea (4).
- ✓ Azazkal-esmalteak, 996 zk. terrakota eta 997 zk. *glitter*.
- ✓ *Lips* Cosmic fluido matea (3), "ezpain hozkatuak" efektuko makillajea.
- ✓ Koloretea.
- ✓ Eguzki Hautsak *contouringerako*.

### AMAIERA BIKAIN BATERAKO

Ukitu metalizatuak dituen turbantea, *party* gisako look baterako.





1

**Itzal-paleta**

Begi-itzalen 9 tonu mate, satinatu eta metaliko.

2

**Begietako duo arkatza**

Bi kolore: beltza eta zilar-grisa, dirdaiekin.



3

**Lips Cosmic**

Ezagutu iraupen luzeko ezpainetako fluido matea, zure ezpainekin kontaktuan jartzean eraldatzen dena. Nola? Eman ezpainetako, utzi lehortzen eta bildu ezpainak. Ia berehala, testura matea fluido distiratsu eta dotore bihurtzen da. Ezpainen benetako metamorfosia!



4

**Argitzailea**

Testura leuna du, eta diamante-itxurako akabera, distira ugarikoa. Brotxarekin eman, argitasuna emateko masailei, bularraldeari eta sorbaldeei, edo pintzelarekin eremu txikiagoetan, hala nola bekainetako arkuan eta sudur-trenkadan.

5

**Betile-maskara**

Definizioa eta bolumen modulagarria.



6

**Begi-itzal trukagarrien kita**

Begietako 12 itzal ditu, mateak, satinatuak eta metalizatuak, baita paleta txikiago bat ere, zure tonurik gogokoenak jartzeko eta zurekin noranahi eramateko. Nahi adina konbinazio egin ditzakezu!



7

**Cosmic pintzel-sorta**

Osorik makillatzeko behar dituzun tresna guztiak ditu: hautsetarako pintzela, pintzel lausotzailea, pintzel alakatua, itzaletarako pintzela eta makillaje-belakia. Gainera, kutxatila biribil bat ere badakar, tresnak gordetzeko eta eroasoago eramateko.







## Katu-begirada

- ✓ Begi-itzala, 02 zk. txokolate-kolore matea, Begi-itzalaren Cosmic Paletakoa (6), betazal mugikorren gainean.
- ✓ Begi-itzala, 01 zk. teila matea, Begi-itzal trukagarrien Kitekoa (6).
- ✓ Begi-itzala, 04 zk. urre zaharren kolorea, Begi-itzalaren Cosmic Paletakoa (1).
- ✓ Begietako duo arkatza (2), kolore beltza dirdaiekin.
- ✓ Begi-itzala, paleta bereko (1) 02 zk. txokolate-kolore matea, beheko betileen muturra markatzeko eta "katu-begirada" looka lortzeko.
- ✓ Cosmic Betile-maskara (5).
- ✓ Lips Cosmic fluido matea (3), "ezpain hozkatuak" efektua.
- ✓ Koloretea.
- ✓ Eguzki Hautsak *contouring*erako.
- ✓ Cosmic Argitzailea (4).

## Manikura kosmikoa

Esmaltatu azazkalak **996 zk. terrakota**rekin, eta, ongi lehortu ondoren, eman **997 zk. glitter** geruza bat; erabat aldatuko duzu zure manikuraren akabera eta kolorea.



### ADITUAREN AHOLKUA

Begi marroiak, gaztaina-kolorekoak edo beltzak badituzu, erabili begi-itzal ilunak eta kafe- eta urre-kolorekoak; zure begirada nabarmenduko dute.

Begi argiei, berriz, hobeto ematen diete itzal gorrixkek eta laranja-kolorekoak.



## Metalizatua vs matea



- ✓ Begi-itzala, 10 zk. Borgoina metalizatua, Begi-itzalen Cosmic Paletakoa (6), oinarri gisa.
- ✓ Begi-itzala, 02 zk. txokolate-kolore matea, Begi-itzalen Cosmic Paletakoa (1), beheko betazalen lerroa markatzeko.
- ✓ Begi-itzala, 01 zk. beix matea, paleta berekoa (1), begi-txokoa argitzeko.
- ✓ Cosmic Batile-maskara (5).
- ✓ Lips Cosmic fluido matea (3), "ezpain hozkatuak" efektuko makillajea.
- ✓ Koloretea.
- ✓ Cosmic Argitzailea (4).



- ✓ Begi-itzala, 05 zk. gerezi-kolore matea, Begi-itzalen Cosmic Paletakoa (1), betazal mugikorraren gainean.
- ✓ Begi-itzala, 02 zk. txokolate-kolore matea, paleta berekoa (1), begirada delineatzeko.
- ✓ Begietako duo arkatza (2), kolore beltza dirdaiekin.
- ✓ Cosmic Batile-maskara (5).
- ✓ Cosmic Argitzailea (4).
- ✓ Lips Cosmic fluido matea (3), "ezpain hozkatuak" efektuko makillajea.
- ✓ Koloretea.
- ✓ Eguzki Hautsak *contouring*erako.

### "Ezpain hozkatuak efektua"

Hori lortzeko erabili beharreko teknika azalduko dizugu:

1. Eman baltsamo hidratatzaile bat.
2. Eman kolore-ukitu bat **Lips Cosmic** fluido matearekin. Eman kolpetxo leunekin goiko eta beheko ezpainen erdialdean.
3. Lausotu hatzarekin, barrutik kanporantz, ertzetara iritsi gabe.  
*C'est fini!*

## Eguna vs gaua



Azal helduetan, erabili azala hidratatua eta mamitsua uzten duten makillaje-oinarriak. Ez ahaztu aurpegi-krema eman behar duzula makillatzen hasi aurretik.

- ✓ Begi-itzala, 06 zk. beixa, Begi-itzal trukagarrien Kitekoa (6).
- ✓ Begietako duo arkatza (2), zilar-grisa dirdaiekin, goiko betazalen lerroan ondo lausotua.
- ✓ Cosmic Betile-maskara (5).
- ✓ Lips Cosmic fluido matea (3).
- ✓ Cosmic Argitzailea (4), bekainen arkuaren eta bularraldean.
- ✓ Koloretea.

### MAISU-UKITUA

Itzal iluneko lookentzat, lehenik begiak makillatzea komeni da, itzalaren hondarrak oinarria zikindu ez dezan.



- ✓ Begi-itzala, 09 zk. beltz matea, Begi-itzalen Cosmic Paletakoa (1), betazal mugikorren gainean lausotua.
- ✓ Begietako duo arkatza (2), zilar-grisa dirdaiekin, begirada markatzeko.
- ✓ Cosmic Betile-maskara (5).
- ✓ Lips Cosmic fluido matea (3).
- ✓ Cosmic Argitzailea (4).
- ✓ Esmaltea, 996 zk. Cosmic terrakota.
- ✓ Koloretea.





## Betazalen iraultza

Bukatu da betile artifizialen aurkako borroka. *Eyliner* beltz itsasgarriari esker, begiak delineatu eta betile berrerabilgarriak itsatsi besterik ez duzu egin behar. Inoiz baino errazagoa da betile ederrak izatea!

- ✓ Begi-itzalak, 01 zk. teila matea eta 07 zk. kobre metalikoa, Begi-itzal trukagarrien Cosmic Kitekoa (6).
- ✓ *Eyliner* beltz itsasgarriaren eta efektu naturaleko betile artifizialen kita.
- ✓ Cosmic Betile-maskara (5).
- ✓ Cosmic Argitzailea (4).
- ✓ *Lips* Cosmic (3) fluido matea, "ezpain hozkatuak" efektuko makillajea.
- ✓ Koloretea.
- ✓ Eguzki Hautsak *contouring*erako.

### Bazenekien...?

***Eyliner* beltz itsasgarria + Efektu naturaleko betile artifizialak** kitak ez du latexik. *Eyliner*raren errotulagailu-formatua ezin hobea da delineatzeko eta ondoren betileak jartzeko. Gainera, betileak berrerabilgarriak dira, eta ez dira desitsasten, ez izerdiarekin ez tenperatura-aldaketarekin. ★



# “Prestatu azala” programa



Gabon hauetan, mimatu zeure burua aurpegia zaintzeko produkturik onenekin. Aukeratu zure azalaren beharretara ongien egokitzen dena eta gozatu azal osasuntsu eta distiratsuaz.

Berezko distira izango duzu!

# VITAMIN ENERGY

## A bitaminen koktela

Azalaren beharretara egokitutako aurpegiko errutina bat ezartzeaz gain, noizean behin garrantzitsua da azala sakon tratatzeko programa intentsiboak egitea. Aurpegiko bitaminak oso lagungarriak dira azala apur bat gehiago zaintzeko eta argi eta indarberrituta edukitzeko.

Vitamin Energy 14 eguneko tratamendu intentsiboa da, 14 anpulu banatutako zazpi bitaminaz osatua.


Bitamina-koktel hori etengabe erabiltzeak zahartze goiztiarraren zantzuak prebenitu eta tratatzen ditu. Aldi berean, azalaren argitasuna indartzen du, eta hura elikatu eta sakon hidratatzen du.

Emaitza? Aurpegiko azal argitsuagoa, osasuntsuagoa eta ederragoa.



## NOLA ERABILI

Eman anpulu-erdia aurpegiko, lepoko eta bularraldeko azalean, garbi eta lehor dagoela. Eman masaje batez, guttiz xurgatu arte. Erabili anpulu bat egunean (goizean erdia, gauean erdia), zure aurpegiko errutinako gainerako produktuak eman aurretik.



## Zer onura ditu?

1-2 EGUNA	3-4 EGUNA	5-6 EGUNA	7-8 EGUNA	9-10 EGUNA	11-12 EGUNA	13-14 EGUNA
<b>B5 bitamina Hidratatzailea</b>	<b>B9 bitamina Antiaging</b>	<b>F bitamina Babeslea</b>	<b>H bitamina Tinkotzailea</b>	<b>B3 bitamina Akatsen kontrakoak</b>	<b>E bitamina Nutritiboa</b>	<b>D probitamina Argitzailea</b>
Hidratatu, lasaitu eta ongizate-sentsazioa ematen du.	Zahartzaroaren zantzuei aurre egiten die, zelulen konponketa sustatuz.	Larruzalaren hesia leheneratzen eta indartzen laguntzen du, azala babestua eta hidratatua mantenduz.	Azalaren sendotasuna hobetzen du, eta lauago, tinkoago eta leunago uzten du.	Tonua bateratu, orbanak eta akatsak murriztu eta azala kutsaduratik eta argi urdinetik babesten du.	Azala gehiago elikatzen du, eta haren testura nabarmen hobetzen du.	Azalaren argitasun naturala indartzen du, eta indarberrituago, mamitsuago eta dentsitate handiagoarekin uzten du.



# SISBELA REAFIRM

## Azal tinkoa eta distiratsua

Aurpegiaren islatzen diren adinaren lehen seinaleetako bi **biguntasuna eta elastikotasun falta** dira. Kolagenoa eta elastina pixkana galtzeagatik gertatzen da, bi osagai horiek funtsezkoak baitira azalaren tinkotasunari eusteko. Nola saihestu? Elikaduraren bidez eta kolagenoaren eta elastinaren ekoizpena bultzatzen duten aktiboetan oinarritutako aurpegi-errutina batekin; adibidez, silizio organikoa erabiliz, Sisbela Reafirm lerroaren protagonista den osagaia.

### BEGI-INGURUAK

Eremu horretako azalari eragiten dio, eta nekearen zantzuak murriztu, zimurrak leundu eta begirada argitzen du berehala.

Haren formula aberatsa da printzipio berritzailetan, hala nola silizio organikoa, Argireline eta E bitamina.

#### NOLA ERABILI BEHAR DUT? >

Eman produktu-kantitate txiki bat goizez eta gauzez azal garbi eta lehorrean. Horretarako, ukitu txikiak eman hatz-mamiekin, erabat xurgatu arte.



## Zer da silizio organikoa?

Printzipio aktibo berritzaile bat da, eta azala sendotzeko propietate ahaltuak ditu, kolagenoaren eta elastinaren ekoizpenean zuzenean eragiten dutenak.

Etengabe erabiltzeak azalaren tinkotasuna, elastikotasuna eta hidratazioa hobetzen du, eta, aldi berean, erradikal askeetatik babesten du.



### % 12 SILIZIOA DEN SERUMA

Aurpegi-eremua sendotzen eta birmoldatzen du, silizio organikotik aberatsa den formulari esker. Gainera, serum honek zahartzearen zantzuak murrizten ditu, sakon hidratatzen du eta azala babesten du, ahalmen antioxidatzaile handia duelako.

#### NOLA ERABILI BEHAR DUT? >

Bota 6 tanta azal garbi eta lehorrean, goizez eta gauzez, eta masajeatu poliki-poliki. Gogoratu produktu hau lerro honetako aurpegi-kremaren aurretik eman behar duzula.



### BIZIBERRITZEKO & BERREGITURATZEKO KREMA

Aurpegi-eremuko kremak RNA/DNA konplexu eksklusiboekin eta silizio organikoekin formulatuta dago. Egokia da azal-mota guztientzat, adinaren zantzu ikusgarriak murrizten ditu, zimurrak lausotzen ditu eta azalaren tinkotasuna areagotzen du.

**NOLA ERABILI BEHAR DUT? >** Gehitu goizeko eta gaueko errutinari, eta eman aurpegi garbi eta lehorrean, masaje arin batekin, erabat xurgatu arte.




# Pre-party aurpegiko masajea


Indartu lerroaren eragin tinkotzailea aurpegiko masaje honekin. *Lifting* efektua lortuko duzu, eta, aldi berean, odol-zirkulazioa aktibatu eta aurpegiko obaloa birmoldatzen lagunduko duzu.

Gabonetako ospakizunak baino lehen erabili.

Aldea nabarituko duzu!



1.




2.

**1 Kopeta, kokotsa eta masailalboak.** Eman seruma eta aurpegiko krema behetik goranzko masaje leun batekin. Kopetan, bekainetik ilea jaiotzen den tokira arte. Kokotsean, aldeetarantz. Masailetan, sudurretik lokietarantz, gorantz eta zeharka.


**2 Begi-inguruak.** Masajeatu bekainak zirkularki, sortzen diren tokitik ertzerantz. Jaitsi betzuloetaraino eta masaje bat eman gorantz, begi-txokotik lokiraino, keinu-marrak erlaxatu eta leuntzeko. Ekin gogoz zimurrak pilatzen diren eremuan, betertzeko zimurrak saihesteko.

**3 Ezpainak.** Eremu honetan, mugimenduak bi fasetan egingo ditugu. Lehenbizi goiko aldean, erditik ezkerrera eta erditik eskuinera. Behekoan, berriz, alderantziz, kanpoko eremutik ezpainen erdirantz.

**4 Lepoa eta bularraldea.** Beti behetik gorantz.



3.



4.



## AMAIERA BIKAIN BATERAKO

Eman ukitu txikiak hatz-mamiekin aurpegi osoan, odol-zirkulazioa berraktibatzeke.

# REGEN SKIN

## Birsortu zure azala

Azal hitsa, deshidratatua eta bizirik gabea? Tonu ez-bateratua, orbanak eta keinu-marrak? Adinaren lehen zantzuak dira. Urteek aurrera egin ahala, murriztu egiten da azalak zelulak birsortzeko duen gaitasuna. Zahartzea prebenitu eta geldiarazteko, ezinbestekoa da prozesu hori sustatzen duten kosmetikoekin osatutako aurpegiko errutina bat izatea.

### TESTURA ABERATSEKO KREMA, EGUNERAKO

C bitaminarekin, urrezko mikropartikulekin eta konplexu birsortzaile batekin osatuta dago, eta aurpegiaren argitasuna indartu eta hidratazioa berrezartzen du; era berean, eguzki-erradiazioetik babesten du (SPF 20). Erradikal askeei aurre egiten die, zeinak azalaren zahartze goiztiarraren eragile nagusiak baitira.



### IZAN JASANGARRIA

Berrerabili Regen Skin kremaren ontzia; produktua amaitutakoan, atera karga hutsa eta sartu karga berria. Birziklatu zure kosmetika-ontziak eta egin apustu planeta hobe baten alde!

### KOLAGENO-SERUMA

Ezin hobea aurpegiaren tinkotasuna, argitasuna eta elastikotasuna hobetzeko. Kolagenotan eta landare-jatorriko zelula amatan aberatsa den formulari esker, zahartzearen zantzuei aurre egiten die eta zelulak birsortzeko prozesuan parte hartzen du, hura aktibatuz.



### TESTURA ABERATSEKO KREMA, GAUERAKO

Krema hau gauero gure azalean gertatzen den zelula-berritzearen prozesua ahalik eta gehien aprobetxatzeko pentsatuta dago, eta adinaren zantzuak geldiarazten eta prebenitzen laguntzen du, bere formulari printzipio aktibo ugari dituelako, hala nola *bakuchiola*, landare-jatorriko aktiboa, zeinak, gainera, testura hobetu eta azalaren tonua bateratzen baitu.



**TIP** Areagotu Regen Skin kremen eragin birsortzailea: goizean, masaje **tinkotzailea** eman, gorantz; gauean, masaje **drainatzailea**, beherantz.



# Nezeserrak



\* Zenbait tamaina eta modelo aukeran.



Zirrara kutzak banan-banan irekitzean. Zure makillaje-errutinan ezinbestekoak diren **12 produktu**. Prest al zaude distiratsu agertzeko?

1. **Begietako delineatzaile likidoa.**  
Azpimarratu zure begirada aplikatzaile zehatzarekin.
2. **Ezpain-baltsamo hidratatzailea, banilla-usainarekin.**
3. **Begi-itzalen paleta.**  
4 lur-tonu, edozein makillajetarako ezinbestekoak.
4. **Azazkal-esmalte gorria.**
5. **Hauts trinkoa, beltzarantzeko efektuarekin.**
6. **Hauts trinkoko koloretea.**
7. **Itzalen pintzela.** Eman eta lausotu zure begi-itzal guztiak, testura eta akabera edozein dutela ere.
8. **Azazkaletarako lima.** Egin manikura perfektua lima honen bi aldeekin: bata, forma emateko, eta bestea, leuntzeko eta hobetzeko.
9. **Nude azazkal-esmaltea.**



10. **Hauts trinko argitzailea.**

11. **Begietako arkatz beltza, zurezkoa.** Ezin hobea da begien barrualdean eta kanpoaldean erabiltzeko.

12. **Ezpainetako likidoa,** azkar lehortzekoa eta testura jariakorrekoa.



*Beauty tip*


Eman masailaren goiko aldean, glow-efektua lortzeko.





# Eman “atsegin dut” zure osagarririk gogokoenari

Diademak, turbanteak, klipak, *scrunchie*ak... Zenbait modelo aukeran.





# Pertsonalizatu zure perfumea

**Your art, your perfume,** *layering* kontzeptuan edo aromak nahasteko artean oinarritutako hiru lurrinez osatutako kutxatila.

Aska ezazu irudimena eta egizu zure lurrina.




## Lurrinak

**Dravita:** Lurrin nagusia, ekialdeko ukitu gozoekin. Zure konbinazio guztien oinarria izango da.

**Amazona:** Ekialdeko ukituak eta frutarenak dituen usaina.

**Magnolia Blanche:** Lore-ukituko Chypre usain-familiakoa.

## Nola erabili



Bi edo are hiru lurrinen aroma batera nahasteak zentzumen-esperientzia guztiz berria sortzeko aukera ematen du, lurrin berririk erosi beharrik gabe. Gogoan izan aukera guztiak:

- 1. Dravita + Magnolia Blanche + Amazona**
- 2. Dravita + Magnolia Blanche.** Egunerako ezin hobea, Magnolia ondo konbinatzen da oinarritzko lurrinaren lore- eta fruta-ukituekin, eta askoz freskoagoa da.
- 3. Dravita + Amazona.** Lurrin hau ezin hobea da gauerako; izan ere, oinarriarekin nahastean nota gozo txigortua nabarmentzen du, zur-notekin batera.
- 4. Dravita**
- 5. Magnolia Blanche**
- 6. Amazona**





# OPARITU onena

Gabonak eta partekatzea sinonimoak dira.  
Denbora, opariak, irribarreak... partekatzen ditugu.

Gure lagun maiteek onena merezi dute.

Aprobetxatu urteko egunik magikoenak zure  
lagunak opari perfektuarekin harritzeko.

Sortu une berezi eta ahaztezinak,  
arrastoa uzten duten oroitzapenak,  
eta gozatu Gabonen liluraz.



# ROMANTIC CHIC



**1 Chypre Femme kapitulua**  
Eau de toilette, bainurako gela eta gorputzeko lozioa.

**2 Rose Nude**  
Emakumearentzako eau de parfuma, gorputzeko lozioa, esku-krema eta bitxiontzia ispiluarekin.

**3 Vuela**  
Emakumeentzako eau de toilette, gorputzeko lozioa, bainurako gela eta esku-krema.





Bitxiontzia begi-bistan! Bi konpartimentutan banatuta eta ispilu polit batekin, **Rose Nude** lurrinaren kaxa zure osagarriak gordetzeko lekurik gustukoena izango da: eraztunak, lepokoak, belarritakoak...

**4 Pour Femme** aukera  
Eau de parfuma, 20 ml-ko eau de parfuma eta esku-krema.

**5 Soplo Intense**  
Emakumeentzako eau de toilette, gorputzeko lozioa eta posizio anitzeko heldulekua duen nezeserra.

**6 Sweet Beauty Set** Eau de parfuma eta lip balma.



Eman bigarren bizitza zure nezeserrari, **Soplo Intense** peluxe-ehunarekin. Eraman soinean gurutzatutako zorro gisa, neguko lookei ukitu chic bat emateko.





# DOTOREZIA KLASIKOA


**1 Ella Pour Femme**  
Eau de parfuma, gorputzeko lozioa eta bitxi-nezeser zurruna, barne-poltsarekin.

**2 Comotú Plata**  
Gizonentzako eau de toilette, bainurako gela eta esprai-desodorantea.

**3 Él Pour Homme**  
Eau de parfuma, 20 ml-ko lurringailua eta gel-xanpua.

**4 Comotú Oro**  
Emakumeentzako eau de toilette, eau de toilette minia eta faroltxoak hiru kandelarekin.

**Ella** lurrinaren poltsatxo bonboi-itxurako clutch eder bihurtzen da, eta Gabonetako ekitaldietan eraman ahal izango duzu. Bizitu edozein *total black look* tonu gorri-morearekin. Erabateko arrakasta izango duzu!



4



5



6



Zoazen lekura zoazela zurekin joango den "orotarako" bat behar duzu?

**Comotú Fuerza** eta **Amor** kutxatila ezin hobea da zure ezinbestekoak gordetzeko. Gainera, zure maletara lot dezakezu, dokumentu pertsonalak eta bestelakoak eramateko. Superpraktikoa!

**5 Comotú Fuerza**  
Gizonentzako *eau de toilette*, *eau de toilette minia* eta kutxatila.

**6 Comotú Amor**  
Emakumeentzako *Eau de toilette*, *eau de toilette minia* eta kutxatila.



# KOSMOPOLITEN GISAN...

- 1 **Hey, Beauty!**  
Emakumeentzako eau de parfuma espraian,  
bainu-gatzak eta gorputzeko esfoliatzailea.
- 2 **Glamour**  
Emakumeentzako eau de parfuma eta  
gorputzeko lozioa.
- 3 **Fougère Homme kapitulua**  
Eau de toilette, bainurako gela eta after shavea.
- 4 **Top Mimos**  
Eskuak garbitzeko gela –ez dago uretan pasatu  
beharrik– eta krema hidratatzailea.
- 5 **Extra Time For Him**  
Eau de toilette, bainurako gela eta xanpua.
- 6 **You Homme**  
Eau de toilette minia (22 ml).
- 7 **You Femme**  
Eau de toilette minia (22 ml).



## Opariak biltzeko tipak

**A**urtengo Gabonetan, egin zerbait desberdina; lortu opariak bereziak izatea ireki aurretik ere. Hona hemen gomendio batzuk, zure opariak zuhaitzeko politenak izan daitezen.





3

4

5

6

7

Utzi zure arrastoa. **You Homme** eta **You Femme** lurrinen mini formatua ezin hobea da beti soinean eramateko eta zure usainak egun osoz irauteko.



★ Erabili **oparitarako paper polit** bat. Laua aukeratzen baduzu, bizitu apaingarriren batekin: begiztak, sokak, Gabonetako bola, satinezko xingola... **Top Mimos** kutxa metalikoa erabil dezakezu apaingarri horiek guztiak gordetzeko.

★ **Kaligrafian** ona bazara, aprobe txatu zure dohain artistikoak, eta pertsonalatu zure opariak hartzaileen izenekin. Artisau-ukitu originala emango diezu. Asko gustatuko zaie!

★ **Txartel edo etiketa** bat ere jar dezakezu, hartzailearen izenarekin eta mezu labur dibertigarri, hunkigarri edo/eta maitekor batekin. Zuk aukeratu!



# BLUE CHRISTMAS

**1 Precision System 6**  
Lortu bizarra larru-arras eta narritadurarik gabe moztea sei orriko bizar-makinarekin (doitasunezko orri bat ere badu, atzealdean). Buru baskulagarri eta pibotatzailea, aurpegiaren ertz guztietara egokitzeko aukera ematen duena. Bederatzi ordezeko pieza eta euskarri eramangarria ditu.

**2 Blue Shine For Her**  
*Eau de parfuma, 20 ml-ko eau de parfuma eta gorputzeko lozioa.*

**3 Blue Shine For Him**  
*Eau de parfuma, 20 ml-ko eau de parfuma eta bainurako gela.*







- 4 **Misty Wood For Men**  
Eau de toilette, bainurako gela, gasik gabeko desodorantea eta after shavea.
- 5 **Around the world** Travel  
Kit for him. Eau de toilette eta bainurako gela.
- 6 **Gesto**  
Gizonentzako eau de toilette, bainurako gela, gasik gabeko desodorantea eta after shavea.



↶

Eman bigarren bizitza **Blue Shine** lurrinen bilgarriari. Kolore urdineko kaxa zoragarriak, azuleju hidraulikoan irudiekin apainduak, ezin hobeak dira objektuak gordetzeko eta, aldi berean, etxea apaintzeko.

★





## Gabon magikoak

Gabonak are bereziagoak dira etxean haurrak badaude. Ilusioa opariak irekitzeko, zuhaitza apaintzeko, gabon-kantak kantatzeko, galletak egiteko, txokolatea hartzeko... Txikienekin egiten den edozein plan familiarreko esperientzia polit eta zirrargarri bihurtzen da.

Aurten, harritu gozo-gozoki Aita Noel eta Errege Magoak. Nola? Txokolatzko txanpon gozoak jarri Gabonetako zuhaitzera doan bidea markatzeko eta opariak non utzi adierazteko. Asko gustatuko zaie!



**Fornite**  
Eau de toilette, nezeserra eta binilo itsasgarria.



**Spiderman**  
Eau de toilette eta bainurako gela.



**Mickey and friends**  
Eau de toilette eta bainurako gela.



**Among us**  
Eau de toilette eta zorro sorpresa zenbait pertsonaia izan ditzakeen giltzatak ofizialarekin, bilduma egiteko.

Beauty kit-ak beren pertsonaiarik gogokoekin

Zure playaren aginteetarako gripak!



**Minecraft**  
Eau de toilette, 2 grip eta nezeserra.





### Color up!

Kutxa metalikoa, eskolarako estutxe gisa erabil daitekeena. Honela osatua: 12 begi-itzal, koloretea, 6 lip gloss, itzal-aplikatzaileak, koloretea emateko brotxa, ilerako goma eta ispilua.



### Frozen Beauty Blockbuster Set

2 lip balm, 3 lip gloss, 2 ezpainetako distira, 3 azazkal-esmalte, hatz-bereizlea, giltzatakkoa, 2 begi-itzal paleta, itsasgarrien sorta eta eraztunak.



### Frozen

Eau de toilette, ezpainetako distira, lip balma, 2 begi-itzal eta haien aplikatzailea.

Hiru solairuko kutxatilik balio du koloretako arkatzak, itsasgarriak, borragomak... gordetzeko.

*Niretzall!*



### Tokidoki

Eau de toilette, giltzatakkoa eta lip glossa.

### Unicorn Power Premium Beauty Case Color Up!

Kosmetikako maleta, honela osatua: 5 azazkal-esmalte, 2 lip gloss, koloretea, 6 begi-itzal, brotxa, ilerako goma, 2 begietako pintzel, eraztuna lip glossekin, azazkaletarako eranskailu-sorta, azazkal artifizialak (itsasgarriak) eta ispilua.



Zure lagunekin partekatzen  
duzun *beauty* unerako  
sorta perfektuak ditugu.  
*Manipedia* eta makillajea  
arratsalde dibertigarri baterako.

## Mini beauty moment



### Tokidoki

15 begi-itzaleko paleta, koloretea,  
2 azazkal-esmalte, hatz-bereizlea,  
lima eta azazkalak apaintzeko  
eranskailuak.



### Love My Unicorn Rock

Eau de toilette, azazkal-esmaltea,  
ezpainenako distira eta aurpegia  
apaintzeko itsasgarriak.



### Unicorn Power Beauty Set Color Up!

Lima, azazkalak apaintzeko  
eranskailu-sorta, 10 azazkal  
artifizial (itsasgarriak),  
4 azazkal-esmalte, 6 koloreko  
itzal-paleta eta aplikatzailea,  
hatz-bereizgailua eta  
ezpain-baltsamoa.



### LOL Surprise!

Eau de toilette, diru-zorroa,  
esmaltea eta azazkaletako lima.





## Janaria prestatzera!

Gabonetan, ezinbestekoa da galletak labean egitea. Haurrek asko gozaten dute galletak egiten, eta gero oparitu edo familiartean jan ditzakezue, askaritarako.

## Osagaiak

- ★ 350 g irin
- ★ 200 g azukre beltz
- ★ 15 g gurin
- ★ 1 arrautza
- ★ 1 koilaratxo jengibre-hauts
- ★ 1 koilaratxo legamia-hauts
- ★ 1 koilaratxo kanela-hauts
- ★ 1/2 koilaratxo intxaur muskatu hauts
- ★ Gatz apur bat

Apaintzeko: 100 g glas azukre, arrautza-zuringo bat eta txokolate beltza

## Nola prestatu?

- ✓ Nahastu bol batean irina, azukrea, legamia, gatz eta espeziak (jengibre, kanela eta intxaur muskatua).
- ✓ Gehitu arrautza eta gurina, eta oratu. Orea bi zatitan banatu eta film-paperean bildu.
- ✓ Utzi hozkailuan ordubete inguru. Denbora hori igaro ondoren, orea ondo zabaldu, arrabol baten laguntzaz.
- ✓ Aurrez berotu labea 180 °C-an, galletei forma dibertigarria ematen diegun bitartean: izarra, Gabonetako zuhaitza, kanpaia... Laberatu 10 bat minutuz eta, ondoren, utzi epeltzen.
- ✓ Galletak apaintzeko, glaseatu bat egingo dugu elur-punturaino harrotutako arrautza-zuringoarekin, eta azukrea erantsiko diogu, ondo nahastu arte. Mahuka batekin edo paperezko kono batekin, galletak apainduko ditugu. Beste aukera bat da txokolatea desegitea eta nahieran apaintzea.





Gabonetako errezetarik  
onenak eskuragarri  
daude dagoeneko





*HOME MOMENT SPA*